# Hitzaurrea

*Europa-Euskal Herria Komunitate-Zuzenbide* eta *Erregionalismorako Ikerketa Taldea* Joxerramon Bengoetxea irakaslearen ideia batetik sortu zen 1998an Eusko Ikaskuntzaren esparruan, komunitate-eremuko erregioei planteaturiko arazo ugariak eztabaidatzeko eta irtenbidea aurkitzeko foro gisa.

Ikerketa Jardunaldiak aldian-aldian egitea zen hasierako ideia, halakoetan Euskal Herri, Nafarroa eta Akitaniako Unibertsitateetako irakasleek esku hartu behar zutelarik. Ideia hori Zientzia Batzorde bat izendatuz gauzatu zen. Hainbat unibertsitatetako irakaslek osatzen dute Batzorde hori: Nafarroako Unibertsitatea, Nafarroako Publikoa, Deustukoa, Université de Pau et Pays de l'Adour eta Euskal Herriko Unibertsitatea. Taldeak etorkizunean egin beharreko Jardunadietan eztabaidatzeko ideiak ematea eta baloratzea da Zientzia Batzorde horren ardura.

Lehen buruan eta Taldearen ekintzak abiarazteko xedearekin, Europa eta erregionalismoari buruzko Jardunaldi batzuk egin genituen Miramar Jauregian, 1998ko abenduaren 14-15 egunetan. Jardunaldi horien emaitzak Eusko Ikaskuntzako *Azpilcueta. Cuadernos de Derecho*-n argitaratuko dira.

Taldea ibiltzen hasteko balio izan zuen lehen esperientzia guztiz gogobetekoa gertatu zen horren ondoren, Joxerramon Bengoetxea arduradunak Taldearen koordinazioa utzi eta lerro hauek idazten dituen honek hartu zuen ardura hori bere gain. Taldearen jarduera-eremua, gai erregional soiletara mugatu gabe, haratago zabaltzea da proposatzen dugun ideia, Komunitate-Zuzenbideko gaurkotasunezko auziak barne hartuz, hala nola berriki indarrean sartu den Amsterdameko Ituna eta planteatzen dituen arazoak.

Hainbat aukera kontuan hartu ondoren, Taldearen ekintzei halako jarraitasun bat emateko asmoz, zenbait irakasle hegoamerikarrek (argentinarrak, uruguayarra eta paraguayarrak) Donostian egin behar zuten egonaldia aprobetxatzeko ahalbidea planteatu zen. Izan ere, Zuzenbide Fakultatean Mercosur-eko Zuzenbideari buruzko bi asteko Ikastaro bat eman behar zuten irakasle horiek Lizentziaturako bostgarren ikasturteko ikasleentzat, Kanpo Arazoetarako Ministerioaren Nazioarteko Kooperaziorako Espainiar Agentziak subentzionaturiko *Red Temática* delako baten barnean.

Helburu horrekin, maiatzaren 3an Jardunaldien era trinko berri honetako lehen Jardunaldiak egin ziren, egun batekoak, Miramar Jauregian, 45 pertsonaren partaidetzarekin.

Mercosur-eko Zuzenbidearen azken garapenak mugarritzea izan zen Jardunaldi horien gai nagusia. Mercosur hegoamerikar eremuko erakunde bat da; hainbat Estatu biltzen du eta haren helburua komertziala da gehienbat, testuan ikusiko denez.

Espero dut argitalpen hau gure erregioak ukitzen dituzten Komunitate-Zuzenbidearen gaurko arazoak ardura nagusi izango duen sail baten lehena besterik ez izatea. Hori dela eta, Unibertsitate-Komunitateko kide guztiak animatzen ditut egitasmo honetan lankide izan daitezen.

Iñaki Pariente de Prada
EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publiko
eta Komunitate Zuzenbideko Irakaslea.
Eusko Ikaskuntzako Komunitate Zuzenbide eta
Erregionalismorako Ikerketa Taldeko Koordinatzailea

# Prólogo

El *Grupo de Estudios sobre Derecho Comunitario y Regionalismo Europa-Euskal Herria* nace en 1998 a partir de una idea del profesor Joxerramon Bengoetxea y en el marco de Eusko Ikaskuntza, como foro donde discutir y solucionar los numerosos problemas que se plantean para las regiones en el ámbito comunitario.

La idea inicial consiste en realizar periódicamente jornadas de estudio, en las que participen profesores de Universidades del País Vasco, Navarra y Aquitania. Esta idea se plasma en el nombramiento de un Comité Científico formado por profesores de las Universidades de Navarra, Pública de Navarra, Deusto, Université de Pau et de Pays de l'Adour y de la Universidad del País Vasco. Este Comité Científico está encargado de proporcionar y valorar ideas para futuras discusiones en jornadas celebradas por el Grupo, incluyendo su participación en las Jornadas.

En un primer momento y con la intención de inaugurar las actividades del Grupo, se realizaron unas Jornadas sobre Europa y regionalismo, en el Palacio Miramar, los días 14 y 15 de diciembre de 1998. El resultado de estas Jornadas va a ser también publicado en *Azpilcueta. Cuadernos de Derecho* de Eusko Ikaskuntza.

Tras esta primera experiencia muy satisfactoria en la que el grupo comienza a andar, su responsable, Joxerramon Bengoetxea, abandonó la coordinación del Grupo, pasando a encargarse de ella el autor de estas líneas. La idea que proponemos es la de ampliar los ámbitos de actuación del Grupo a temas más amplios que los exclusivamente regionales, incluyendo algunas cuestiones de actualidad en Derecho Comunitario, como podría ser, por ejemplo, la reciente entrada en vigor del Tratado de Amsterdam y los problemas que plantea.

Una vez barajadas diversas opciones, con el fin de dotar de cierta continuidad a las actividades del Grupo, se planteó la posibilidad de aprovechar la estancia en San Sebastián de varios profesores sudamericanos (argentinos, uruguayos y paraguayos), que iban a impartir a lo largo de dos semanas un Curso sobre Derecho del Mercosur, en sesiones diarias en la Facultad de Derecho para alumnos de quinto curso de Licenciatura, en el marco de una Red Temática subvencionada por la Agencia Española de Cooperación Internacional del Ministerio de Asuntos Exteriores.

Con este fin, el día 3 de mayo celebramos las primeras jornadas en este nuevo formato de Jornadas intensivas de un día de duración, en el Palacio Miramar, a la que asistieron 45 personas.

El tema central de estas Jornadas fue la delimitación de los últimos desarrollos en el Derecho del Mercosur, organización de ámbito sudamericano que agrupa a varios Estados, y que tiene una finalidad primordialmente comercial, como se verá en el texto.

Espero y confío que esta publicación no sea más que la primera de una serie que tengan como preocupación fundamental aquellas cuestiones de actualidad del Derecho Comunitario que afecten a nuestras regiones. Para ello, animo a los miembros de la Comunidad Universitaria a que colaboren con este proyecto.

Iñaki Pariente de Prada
Profesor de Derecho Internacional Público
y Derecho Comunitario Europeo de la UPV/EHU.
Coordinador del Grupo de Estudios de Derecho Comunitario
y Regionalismo "Europa-Euskal Herria" de Eusko Ikaskuntza

# Prologue

Le *Groupe d'Etudes sur le Droit Communautaire et Régionalisme Europe-Euskal Herria* naît en 1998 à partir d'une idée du professeur Joxerramon Bengoetxea et au sein de Eusko Ikaskuntza, comme un forum où l'on peut discuter et résoudre les nombreux problèmes auxquels se trouvent confrontées les régions dans le domaine communautaire.

L'idée initiale consiste à réaliser régulièrement des journées d'étude, où participeraient des enseignants des Universités du Pays Basque, de Navarre et d'Aquitaine. Cette idée se concrétise avec la nomination d'un Comité Scientifique formé par des enseignants des Universités de Navarre, de l'Université Publique de Navarre, Deusto, Université de Pau et des Pays de l'Adour et de l'Université du Pays Basque. Ce Comité scientifique se chargera de fournir et d´évaluer les idées pour des futures discussions dans des journées célébrées par le Groupe, en incluant leur participation aux Journées.

Dans un premier temps, et dans l'intention d'inaugurer les activités du Groupe, furent organisées des Journées sur l'Europe et Régionalisme, au Palais Miramar, les 14-15 décembre 1998. Le résultat de ces Journées sera également publié dans les *Azpilcueta. Cuadernos de Derecho.*

Après cette première expérience, très satisfaisante, où le Groupe commença à fonctionner, son responsable, Joxerramon Bengoetxea, abandonna la coordination du Groupe, responsabilité qui retomba sur l'auteur de ces lignes. L'idée que nous proposons est d'élargir les domaines d'activité du Groupe à des sujets plus vastes que les thèmes exclusivement régionaux en incluant certaines questions d'actualité sur le Droit Communautaire, comme, par exemple, l'entrée en vigueur récemment du Traité d'Amsterdam et les problèmes qu'il a soulevé.

Une fois analysées plusieurs options, dans le but de donner une certaine continuité aux activités du Groupe, on étudia la possibilité de profiter du séjour à Saint Sébastien de plusieurs professeurs sud-américains (argentins, uruguayens et paraguayens), qui allaient enseigner pendant deux semaines un Cours sur le Droit du Mercosur, en sessions journalières à la Faculté de Droit pour des élèves de Cinquième année de Licence, dans le cadre d'un Réseau Thématique subventionné par l'Agence Espagnole de Coopération Internationale du Ministère des Affaires Etrangères.

Dans ce but, nous avons célébré, le 3 mai, les premières journées avec ce nouveau format de Journées intensives, au Palais Miramar, auxquelles assistèrent 45 personnes.

Le sujet central de ces Journées fut la délimitation des dernières nouveautés dans le Droit de Mercosur, organisation sud-américaine qui regroupe plusieurs Etats, et dont la finalité est surtout commerciale, comme nous le verrons dans le texte.

J'espère que cette publication ne sera que la première d'une série ayant pour principal sujet d'intérêt les questions d'actualité du Droit Communautaire qui touchent nos régions. C'est pour cela que j'encourage tous les membres de la Communauté Universitaire à collaborer dans ce projet.

Iñaki Pariente de Prada
Professor de Droit International Public
et Droit Communautaire Européen de l'UPV/EHU.
Coordinateur du Groupe d'Etudes de Droit Communautaire
et Réginalisme "Europa-Euskal Herria" d'Eusko Ikaskuntza